

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Donostiako Giza Eskubideen 18. Zinemaldia apirilaren 23tik 30era izango da

36 filmek eta 5 erakusketak osatzen dute zinemaldiaren programa, datorren apirilaren 23an Victoria Eugenia Antzokian hasiera emango zaiona “Yalda, la noche del perdón” filmaren proiektioarekin

Yalda, la noche del perdón (2019) filmak, Massoud Bakhshik zuzenduak, inauguratuko du datorren apirilaren 23an Victoria Eugenia Antzokian **Donostiako Giza Eskubideen 18. Zinemaldia**, Udalak, Giza Eskubideen atalaren bitartez, eta Donostia Kulturak antolatua.

Petit pays (2020) filmak, Éric Barbierrek zuzenduak, emango dio zinemaldiari azkena apirilaren 30ean, Victoria Eugenia Antzokian ere. Bertan ospatuko den galan zinemaldiaren sari berezia jasoko dute **Montxo Armendariz** zuzendaria eta **Puy Ori** ekoizleak.

Aurten, Antzoki Zaharrea eta Victoria Eugenia Antzokian izango dira filmen emanaldiak, eta bi saio berezi egingo dira Tabakalera eta Kresala Zineklubean (Trueba Zinemak). Gainera, 5 erakusketa eskaintzen dira zinemaldiaren programazioan.

Zinemaldiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesa jasotzen du Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, baita hainbat GKEren eta entitateen laguntza ere –Euskadiko GGKen Koordinakundea, CEAR, Unicef, Gehitu, Amnistia Internazionala, Acnur, SOS Arrazakeria eta FiSahara, besteak beste–.

Giza Eskubideen Zinemaldiaren 18. edizioa da oraingoa. Aurten, 19 nazionalitatetako 36 film (22 film luze eta 14 labur) proiektatuko dira guztira, eta 5 erakusketa programatu dira.

Zinemaldiaren barruan **Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen 3. Azoka** ere izango dugu, **Eskura – Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroak** antolatua. Bestalde, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, zinemaldiarekin lankidetzan, **BegiraTÚ** prestatu du, giza eskubideei buruzko *online* joko bat.

Programazio hau solasaldiekin osatuko da eta haietan parte hartuko dute filmen protagonistek, zinemagileek eta hizpide diren gai sozialetan adituek.

Aurten, ikastetxeetarako proiektioak ikasgeletan egingo dira. Hiru film ikusi ahal izango dira *online*.

Giza eskubideen defentsaren eta urraketaren hainbat alderdiren inguruko hausnarketa, sentsibilizazioa eta debatea bultzatzea da zinemaldi honen **helburua**, baita herritartasun aktibo bat sustatzen laguntzea ere, justiziarekin eta ekitate sozialarekin konprometitua.

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

SARRERAK

Sarrerak (4,50 €) datorren **astelehenean, apirilak 19**, jarriko dira salgai **11:30etik** aurrera, Antzoki Zaharreko eta Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan, eta Internet bidez.

Doako emanaldietarako gonbidapenak egun berean, apirilak 19, jarriko dira publikoaren eskueran bi antzokietako leihatiletan.

FILM LUZEAK

Aurten, **14 film luze** parte hartuko dute Zinemaldiaren Sail Ofizialean. Munduko bazter guztietatik datozen filmak dira, askotariko gaiei heltzen dietenak. Urtero bezala, solasaldiak egingo dira publikoarekin batera Victoria Eugenia Antzokiko goizeko emanaldietan, baita Antzoki Zaharreko larunbat eta igande goizeko bi emanaldietan ere, non izango diren aurkeztutako filmetako taldekideak, gaietan adi-tuak, organismo eta GKEetako ordezkariak...

100 urte betetzea

1. **100UP** (2020). Heddy Honigmann. Herbehereak-Norvegia-Belgika (**SOLASALDIA**)

Bizitzak salbatzea ez da delitua

2. **AITA MARI** (2021). Javi Julio. Euskadi (**LEHIAKETATIK KANPO**) (**SOLASALDIA**)

Hautzaroa eta gerra Sarajevon

3. **ÁLBUM DE POSGUERRA** (2020). Àngel Leiro, Airy Maragall. Espainia (**SOLASALDIA**)

Apaiz antifrakistak

4. **APAIZ KARZTELA** (2021). Ritxi Lizartza, David Pallarès, Oier Aranzabal. Euskadi

LGTBIQ+ purga Txetxenian

5. **BIENVENIDOS A CHECHENIA** (*Welcome to Chechnya*, 2020). David France. AEB

Migratzaileekiko aurreiritziak

6. **BLACK JESUS** (2020). Luca Lucchesi. Alemania

Segurtasunaren negozioa AEB-etako eskoletan

7. **BULLETPROOF** (2020). Todd Chandler. AEB

Adingabeenganako sexu abusuak sarean

8. **CAUGHT IN THE NET** (2020). Barbora Chalupová, Vít Klusák. Txekiar Errepublika (**SOLASALDIA**)

Mendebaldeko Sahara

9. **OCUPACIÓN S. A.** (2020). Laura Daudén, Sebastián Ruiz-Cabrera. Espainia (**LEHIAKETATIK KANPO**) (**SOLASALDIA**)



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Gerra etnikoa Burundin

10. **PETIT PAYS** (2020). Éric Barbier. Frantzia-Belgika (**BUKAERA**) (**LEHIAKETATIK KANPO**)

"Traidoreak" eta ETA

11. **TRAIADORES** (2020). Jon Viar. Espainia

"Zor den obediencia" eta dilema morala

12. **LA VIDA DE LOS DEMÁS** (*There Is No Evil / Sheytan vojud nadarad*, 2020). Mohammad Rasoulof. Alemania-Txekiar Errepublikak-Iran

Bakarrik dauden adingabeak

13. **VIDAS MENORES** (2020). Alfredo Torrescales. Espainia (**SOLASALDIA**)

Barkamenaren prezioa

14. **YALDA, LA NOCHE DEL PERDÓN** (*Yalda, a Night for Forgiveness*, 2019). Massoud Bakhshi. Iran-Frantzia-Alemania-Suitza-Luxenburgo-Libano (**INAUGURAZIOA**)

SAIO BEREZIAK

Donostiako Espetxea

Mota honetako kultur ekimenetatik baztertuta dauden kolektiboen eskuragarritasuna hobetzeko, Giza Eskubideen Zinemaldiak **film laburren emanaldia** antolatu du Donostiako Espetxean.

Tabakalera

Indarkeria eta XX. mendea

IRRADIÉS (2020). Rithy Panh. Frantzia-Kanbodia

Kresala Zinekluba

SUK SUK (2019). Ray Yeung. Hong Kong, Txina

Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen 3. Azoka Ingurumena eta Giza Eskubideak (ESKURA)

LA VIDA SECRETA DE LOS ÁRBOLES (*Das geheime Leben der Bäume*, 2020). Jörg Adolph. Alemania (**SOLASALDIA**)



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

FILM LABURREN LEHIAKETA

1. **16 de diciembre** (2019). Álvaro Gago. Espainia
2. **Bad Omen** (2020). Salar Pashtoonyar. Kanada-Afganistan
3. **Biografía del cadáver de una mujer** (2020). Mabel Lozano. Espainia
4. **Carne** (2019). Camila Kater. Brasil-Espainia
5. **La Chasse** (2020). Ryan Jogi. Frantzia
6. **Confinés dehors** (2020). Julien Goudichaud. Frantzia
7. **La espera** (2020). Jakob Krese, Danilo Do Carmo. Alemania-Brasil
8. **Masha / Masza** (2020). Krzysztof Chodorowski. Polonia
9. **Petit poussin** (2020). Nadia Anebri. Frantzia
10. **Stilleben / The Caretaker** (2020). Roland Puknat. Alemania
11. **Une nouvelle page** (2020). Benjamin Clavel. Frantzia
12. **Mutha y la muerte de Hamma-Fuku** (2021). Daniel Suberviola. Espainia
(LEHIAKETATIK KANPO)

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN SARIA MONTXO ARMENDARIZ / PUY ORIA

Montxo Armendariz eta Puy Oria funtsezko figurak dira Espainian azken hamarkadetan egin den zinemaren barruan; izan ere, zinema horren historia hurbileko obra klasiko eta ezinbesteko batzuen egileak dira.

Montxo Armendarizek honako film hauek zuzendu ditu, besteak beste: **Tasio** (1984), **27 horas** (1986), **Las cartas de Alou** (1990), **Historias del Kronen** (1995) eta **Secretos del corazón** (1997).

Puy Oriak produkzio-zereginak bete ditu honako film hauetan, besteak beste: **¡Dispara!** (1993), **La pasión turca** (1994), **La ley de la frontera** (1996) eta **Profundo carmesí** (1996). Hori guztia, Armendarizekin batera Oria Films sortu aurretik. Halaber, ikus-entzunezkoen produkzioari buruzko eskolak eman ditu hainbat zentrotan, eta hainbat kargu bete ditu zenbait elkartetan. Adibidez, PIAF (Productoras Independientes Audiovisuales Federadas) elkarteko presidentea izan da azken urteetan.

1999. urtean, Oria Films sortu zuten, eta Armendarizek zuzendutako honako film hauek produzitu ziren bertan: **Silencio roto** (2001), **Escenario móvil** (2004), **Obaba** (2005) eta **No tengas miedo** (2011). Film horiekin, agerian utzi zuten gai sozial mota oro jorrazteko asmoa, memoria historikoarekiko konpromisoa eta beren garaiko eta inguruneke errealitateak kontatzeko interesa.

Hori guztia azken hamarkadetan produzitu dituzten beste obra batzuetan ere hauteman daiteke, hala nola honako hauetan: **La guerrilla de la memoria** (Javier Corcuera, 2002), **El inmortal** (Mercedes Moncada Rodríguez, 2005) eta **De tu ventana a la mía** (Paula Ortiz, 2011).

PROIEKZIOA + SOLASALDIA

SILENCIO ROTO (2001). Montxo Armendariz. Espainia

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

SARIAK

IKUSLEEN SARIA FILM LUZE ONENARI

Ikusleek Sail Ofizialeko 11 film luzeen artean aukeratuko dute.

GAZTE EPAIMAHAIAREN SARIA FILM LABUR ONENARI

Epaimahai Gazteak Film Labur Onenaren Saria ematen du urtero, 3.000 eurokoa.

AMNESTY INTERNATIONAL SARIA

Irabazlea Amnesty International erakundeko kideek eta ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalak osatutako epaimahai batek erabakiko du.

GAIK ETA SOLASALDIAK

Zinemaren munduko eta giza eskubideen defentsaren eremuko pertsona gailenek bisitatuko dute Donostia egun horietan, eta aurkezpenetan eta solasaldietan parte hartuko dute publikoarekin batera. Gainera, Zinemaldiak hainbat testu argitaratuko ditu solasaldietako gaiet buruzko hausnarketa bultzatzeko; testu horiek zinemaldiaren webgunean kontsultatu ahal izango dira. Zinemaldiaren 18. edizio honetan hauek izango dira:

Solasaldia izango duten gaiak

- 100 urte betetzea (**100Up**)
Ander Matheu: zahartzaroan aditua (Biodonostia)
Eva Salaberria: Donostia Lagunkoia planaren koordinatzailea
Axen Egaña: Kai-alde Elkartearen Adineko Pertsona Jubilatuen idazkaria
- Bizitzak salbatzea ez da delitua (**Aita Mari**)
Javi Julio: filmaren zuzendaria
Izaskun Arriaran & Iñigo Mijangos: Salvamento Marítimo Humanitario (SMH)
- Haurtzaroa eta gerra Sarajevon (**Álbum de posguerra**)
Gervasio Sánchez: fotokazetaria
Àngel Leyro & Airy Maragall: filmaren zuzendariak
- Adingabeenganako sexu abusuak sarean (**Caught in the Net**)
Manu Viota: Ertzaintzako Informazio Teknologietako Delituen Atal Nagusiko burua
Ana Estévez: Deustuko Unibertsitateko Nortasun, Ebaluazio eta Tratamendu Psikologikoen Saileko irakasle titularra
- Mendebaldeko Sahara (**Ocupación S. A.**)
Juan Soroeta: UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren irakaslea
José Manuel Martín Almeida: **Mutha y la muerte de Hamma-Fuku** filmaren ekoizlea eta gidoilaria

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Mónica Alonso: Mundubateko Giza Eskubideen eta Ekintza Humanitarioaren Departamentuko koordinatzailea

M. Limam Mohamed Ali: Mendebaldeko Saharako Ordezkaría Euskadin

- Bakarrik dauden adingabeak (**Vidas menores**)
Alfredo Torrescales: filmaren zuzendaría
Ismail Ennaimi: filmaren protagonista
Elena Ayarza: Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoko arduraduna
- Gerraostea eta frankismoaren aurkako erresistentzia (**Silencio roto**)
Montxo Armendariz (filmaren zuzendaría)
Puy Oria (filmaren ekoizlea)

Jorratuko diren beste gaiak

- Apaiz antifrankistak
- LGTBIQ+ purga Txetxenian
- Migratzaileekiko aurreiritziak
- Segurtasunaren negozioa AEB-etako eskoletan
- Indarkeria eta XX. mendea
- Gerra etnikoa Burundin
- “Traidoreak” eta ETA
- “Zor den obediencia” eta dilema morala
- Barkamenaren prezioa

HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO SAIOAK

Hiriko ikastetxeetako ikasleek emanaldietara bertaratzeko aukera izango dute: aurten ikastetxeetan bertan proiektatuko dira *online*, eta aurreko edizioetan bezala, elementu didaktiko eta hezitzaile gisa programatu dira, haurrek eta gazteek osatutako publikoari beste errealitate batzuk ezagutzera emateko eta haiei buruz sentsibilizatzeko.

Filmetan agertzen diren baloreetan sakontzeko, proiektzioak **gida didaktikoekin** osatuko dira.

Demokraziaren oihana

- **ASTO ERREGA / EL REY BURRO** (*The Donkey King*, 2018). Aziz Jindani. Pakistan

Adiskidetasuna eta ingurumenarekiko errespetua

- **TERRA WILLY: PLANETA EZEZAGUNA** (*Terra Willy: Planète inconnue*, 2019). Éric Tosti. Frantzia

Sarraskia greba-eskubidearen aurrean

- **VITORIA, 3 DE MARZO** (2019). Victor Cabaco. Euskadi



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

JARDUERA GEHIGARRIAK

- **Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen 3. Azoka Ingurumena eta Giza Eskubideak**
apirilak 24-26-27
Antzoki Zaharra & Club Aretoa (Victoria Eugenia Antzokia)
Antolatzailea: *Eskura – Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroa*
- **BegiraTÚ** (jokoa)
apirilak 23-30 (*online*)
Antolatzailea: *Euskadiko GGKEen Koordinakundea*

ERAKUSKETAK

- **Jane Goodall**
Ikertzailea eta bakeraen aldeko aktibista
apirilak 16 – ekainak 13
Aiete K. E.
Haurrentzako tailerrak ere izango dira
- **Begirada hurbila**
Carmen Ballvé
martxoak 12 – maiatzak 16
San Telmo Museoa
- **Artea eta giza eskubideak, haur eta gazteen 17. ekitaldia**
apirilak 23-30
Zinemaldiaren Informazio Bulegoa (Victoria Eugenia Antzokia)
Antolatzailea: *Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Arloa*
- **Emakumeak borrokan / Mujeres en lucha**
apirilak 15-30
Udal Liburutegi Nagusia (Alderdi Eder)
Antolatzailea: *Amnesty International*
- **AridA**
Bea Rivas
apirilak 20 – maiatzak 31
FNAC